



NAHASMENDU MENTALA DUTEN ADINGABEEI ARRETA EMATEKO EGUNEKO ZENTROA

ZERGATIK?



Heltze, antolatze eta integrazio psikiko eta emozionalerako zailtasun globalek, patologia horien berezko sintomatologiarekin eta pertsona horien baliabide funtzional osasuntsuak aprobetxatzeko beharrarekin batera, gaur egun ez dauden egitura instituzionalak eta diziplina anitzeko talde profesionalen premia areagotzen dute.

Nortasun-Nahasmenen (NN) asistentzia, bereziki kasu larrietan, sintometan zentratzen da. Oso baliabide gutxi erabiltzen dira NNren nukleo psikopatologikora bideratutako esku-hartze goiztiarretan. Azken emaitza hauxe da: batzuetan, praktikan, NN larrien benetako tratamendua ospitalean eta larrialdietan egiten da, nahiz eta klinikoki eta ekonomikoki eraginkorra ez denaren ebidentzia egon. Buru nahasmen larria duten adingabeei arreta emateko eguneko zentro baten sorrera, erakunde guztietako profesionalek behin eta berriz egindako aldarrikapena da.

NORK?

Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiak



ZERTARAKO?



Helburu orokorra: buru-nahaste larria duten adingabeei eta haien familiei ematen zaien arreta hobetzea, arreta soziosanitario eta hezitzailea emango duen Eguneko Zentroaren eredu bat definituz. Eredu horren bidez, adingabe horien egokitze-zailtasun indibidualak, familiarrak, taldekoak eta sozialak adierazteko aldakortasunarekin bat datozen tratamendu terapeutikoak egin ahal izango dira.

Helburu espezifikoak, honakoak izango dira:

- Helburu terapeutikoak
- Helburu sozialak
- Hezkuntza-helburuak

NOLA?

Eguneko zentroaren proposamen teknikoa egingo duen erakunde bat kontratatzeko lehiaketa egitea.



NON?

Lurraldekoa

NOIZ?

2022/10/10



75.000€